

“ ”

Lotsagarria litzateke etxebizitza turistikoaren araudia pertsona horiek baldintzatzea

MANU ARAKAMA

Gasteiz Txiki auzo elkarteko presidentea

Hamarkadak dira Gasteizko Alde Zaharreko eragile eta auzokideek salatzen dutela udaletik bultzatzen den auzo eredua, turismoan eta gentrifikazioan oinarrituta. Eredua horren azken aurpegia da etxebizitza turistikoena, auzoan kontrako ahotsak altxatu dituenak. Gasteiz Txiki auzo elkarteko Manu Arakamarekin hitz egin dugu kontrakotasunaren zergatiaz, etorri daitekeenaz eta hori geldiarazteko moduez. Baita etxebizitzaren turistifikazioaren bultzatzaile nagusien legez kanpoko jardunaz ere, ARGIAk ezagutzera eman duena.

 ZIGOR OLABARRIA  DOS POR DOS

Gustavo Antépara PPko zinegotzi izan da Gasteizko Udalean, eta 2015etik hiriaren hirigintza zuzentzen duen 21 Zabalgune sozietate publikoko administrazio kontseiluko kide da. Nola baloratzen duzue horrelako ardurak dituen pertsona batek legez kanpoko pisu turistikoekin negozioa egitea?

21 Zabalkundean hartzen diren erabakiek ahalbidetzen dute etxebizitzaren arloko espekulazio izugarria; pertsona horrek babestu dituen politikek egin dute etxebizitzak turismora bideratzea pagotxa izatea. Uler genezake krisi garaietan familia batzuk etxebizitza turistikoetan bilatzea bizitza duinago bat lortzeko bidea; baina ez gaude prest onartzeko

erabilera espekulatiboa eta inongo mugarik gabea, are gutxiago botere posizio batetik legez kanpo egindakoa.

Arabatur elkarrekin alegazioa aurkeztu zuen udalean, araudiak auzoko etxe guztiak turismora bideratzeko aukera eman dezan. Elkarteko presidentea Pilar Perosanz da, eta Antépararen legez kanpoko pisu turistikoak esplotatzen dituen Luxury enpresako administratzailea da aldi berean.

Arabaturren helburu bakarra espekulazioa da, ahal beste diru egitea, eta bide horretan bost axola diote kulturak, pertsonak, ondareak, auzo bizitzak... eta antza baita arauak eta legediak ere.

Auzoko eragile ugari agertu zarete etxebizitza turistikoaren aurka.

Zergatik?

Prekarioa den etxebizitzaren egoera are gehiago prekarizatuko lukeelako. Etxe agentzietan lan egiten duten pertsonekin hitz egin dugu, eta ohartarazi digute etxebizitza turistikoek ekartzen dutela gentrifikazioa, etxebizitzaren prezioaren igoera, eta alokairurako aukeren murrizketa.

EAJ-PSE udal gobernuak ardura zuzena du: Alde Zaharrerako duen auzo eredua turismoari bideratuta dago, eta ez ditu auzokideak kontutan hartzen. Etxebizitza turistikoekin paraleloan ikusi dugu nola sustatzen diren hotelak, ostatuak edo ostalaritza eredu jakin bat.



Kanpokale Berria kalean 42 plazetako ostatu bat ireki berri dute.

Interneten eskaintzen diren etxebizitzak erregistratuta daudenak baino askoz gehiago dira. Uste duzu udal gobernua legez kanpoko praktika hauek ezagutzen dituela?

Uste dugu baietz, eta ezkutatzeko joera duela. Ofizialki onartzen du hirian 78 etxebizitza turistiko daudela, eta Alde Zaharrean 22. Udalak konpromisoa hartu zuen etxebizitza turistikoak lehenbiziko solairuetan soilik onartzeko, baina araudi espezifiko eza eta luze doan hutsune legala baliatuta, ugariak dira bigarren eta hirugarren solairuetan kokatuta daudenak.

Udal gobernua Alde Zaharreko etxebizitzaren turistifikazioa arautzeko proposamena egin zuen 2020an; Arabaturrek alegazioak aurkeztu zituen eta udal gobernua partzialki onartu; jarraian auzokideek aurkeztu zituzten

“ ”

Antéparak babestu dituen politikak egin dute etxebizitzak turismora bideratzea pagotxa izatea

alegazioak, Gasteiz Txikik sustatuta, debeku orokorra eskatuz. Hiru urte joan dira eta auzoak araudirik gabe jarraitzen du. Zer espero duzue?

Udalak etxebizitza turistikoak bultzatzen jarraituko du modu batera edo bestera, besteak beste bertako pertsona jakin batzuek interesak dituztelako horrela izan dadin.

Ana Oregi jeltzaleak [arloko sailaren zinegotzi arduraduna] erdi aditza eman zigunaren arabera, uste dugu egungo gobernuaren ideia dela etxebi-

zitza turistikoak baimentzea etxebetan eta lehen solairuetan. Gu aurka gaude.

Deigarria litzateke auzorako onartzen den etxebizitza turistikoaren araudia Arabaturren lobby lanak baldintzatzea, ikusita nortzuk dauden atzean eta nola ari diren jokatzeko.

Lotsagarria litzateke pertsona horiek baldintzatzea araudi berria. Eta faktore bat izan behar da kontutan, salagarriago egingo lukeena: duten kokapen politikoaren eta ahal ekonomikoaren ondorioz, pertsona horiek gertatuko dena aurreikusi eta planak egin ditzaizkete epe ertain luzerako. Auzokideei dei egiten diegu, batetik, salaketa egitera, etxebizitza turistiko, hotel edo ostatu berri bat zabalduko dela jakiten badute. Eta, bestetik, atarietako bileretan horiek debekatzeko erabakia hartu eta komunitatearen estatutuaren jasotzera. Hori proposatu genuenetik, etxebizitza turistikoaren inguruko eztabaida zabaldu da auzoan, eta espekulazioari traba eraginkorra jarri diogu. ●